

2015

Nafarroan hizkuntza-politika garatzeko hamahiru proposamen

Euskararen Gizarte Erakundeen
Kontseilua



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Sarrera

Nafarroan urteetan aplikatu diren hizkuntza-politikek ez dute euskararen normalizazioa izan helburu. Areago, euskararen berezko garapena eragozteko helburua izan dute. Gobernua kudeatu duten alderdiek hori izan dute komunean. Formak izan dira aldatu diren bakarrak, batzuetan indarrez, gupidarik gabe, euskararen aldeko mugimendua ito nahian eta beste batzuetan jarrera leunagoak erabiliz baina betiere euskararen garapena eragozteka bilatzen duten egiturazko neurriei eutsiz.

Nafarroako herritarrak izan dira euskarari sostengua eman diotenak. Nafarroako herritarren ahalegin militante eta ekonomikoari esker egin du euskarak aurrera. Egoera egokiagoak egon diren lurraldeetan azkarrago eta indartsuago egin dugu aurrera eta besteetan ahalegin eta neke handiz izan bada ere nafarron arteko elkartasunak ahalbidetu du aurrerapena. Azken batean, euskaldunon euskaraz bizi nahia eta lana izan dira, dira eta izanen dira aurrerantzean ere, euskararen geroaren bermerik hoberenak.

Etorkizunari begira jarrita, Nafarroa osoan euskaraz bizi ahal izateko bidean urrats handiagoak egiteko hizkuntza-politika errotik aldatu beharra dago. Aldaketa beharrezkoa da, orain arte baino bizkorrago eta errazago egiteko aurrera.

Baina, nondik hasi? Hizkuntza gutxiagotu bat normalizatzeari ari garela ezin da dena egun bakarrean egin, are gutxiago mende laurden luzean kontrako norabidean aritu badira Nafarroako Gobernuak. Aldaketak lehen urte hauetan oinarriak jarri beharko lituzke datozen urteotan garapen sendoa bermatzeko.

Horixe da dokumentu honen helburua. 2015ean hasita, euskararen normalizazioak behar dituen zutabe sendoak ezartzeko hartu behar diren egiturazko neurriak zein diren zehaztea, alegia.

Hamahiru proposamen

1. Arkitektura juridikoa aldatu

Vascuencearen legetik euskararen legera pasatu behar dugu. Hizkuntza-politika egoki batek arkitektura juridiko egoki baten laguntza izan behar du. Ez gara legeaz bakarrik ari. Legea osatzera doazen dekretuak eta bestelako arauak ere euskararen normalizazioaren zerbitzuan jarri behar dira.

2. Gobernuaren egituraren gailurrean kokatu behar da euskara saila

Euskararen normalizazioak zeharkako izaera du eta ondorioz, gobernuak izaera hori garatzeko egiturarik egokiena den lehendakariordetza sortzea da bidea. Euskarari behar duen besteko bultzada eman nahi bazaio, gobernuko sail guztietan eragin beharko da eta hori lehendakaritzatik bakarrik egin daitekeen zerbait da. Izan ere, gaur egunean Hezkuntza Sailaren barruan egotea ez da kokagunerik egokiena bere eginbeharrak betetzeko eta ez du behar bezala irudikatzen euskarak izan beharko lukeen garrantzia ere.

3. Administrazioa euskaldundu

Administrazioaren euskalduntzea erabakigarria da euskararen normalizaziorako eta herritarren hizkuntza-eskubideen bermerako, eta hori esatean bera osatzen duten Sail guztiak hartu behar dira kontuan, inolako salbuespenik gabe. Nafarroak ez du inoiz izan administrazioa euskalduntzeko plangintzarik eta ondorioz, langileen borondatearen arabera da herritarrak euskaraz artatzea. Hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoarekin bukatzeko plangintzen bidea abiatzen hasi beharra dago. Ukaezina da administrazioak hizkuntza eskakizunak eskatu behar dizkiela sartu nahi duten langileei, herritarrei zarbitzua euskaraz eman ahal izateko.

4. Hezkuntza sistemak belaunaldi berriak euskalduntzeko bideak

Emaitzen ebaluaketak nabarmen erakutsi du G, A eta B ereduak desegokiak direla belaunaldi berriak euskalduntzeko. Ingeleseko programa berriek ere ez dute helburu hori lortzen. D eredu edo euskarazko murgiltze eredu da emaitzarik hoberenak eskaintzen dituen.

Horregatik, hezkuntza-sistemaren barruko ikasle guztiak hamasei urte betetzean euskararen jabe izan daitezzen D eredu abiapuntu, irakasteredu egoki bat ezarri behar da. Horretarako, beharrezko birmoldaketak egin eta behar besteko baliabideak eskaini beharko dira.

5. Alor Sozioekonomikoa euskaldundu

Lan-mundua euskalduntzeko erabaki sendoa hartu behar da eta horretarako hainbat urrats egin behar dira: publizitatearen eta produktuen etiketen gaineko lege egokiak sortu, enpresetan normalizazio planak abiatzeko erraztasunak eman, hizkuntza irizpideak ezarri kontratazioetan, diru laguntzak eman etab. Alor honetan orain arte ez da ezer egin Gobernuaren aldetik. Gaurko egoera aldatu ezean euskaldunon hizkuntza eskubideak urratzeaz gain etorkizuneko belaunaldietan egiten den inbertsioa oso murrizturik aurkitzen da lan-jardueretan euskara erabiltzeko aukerak oso mugatuak gertatzen direlako.

6. Helduen euskalduntzea

Helduen euskalduntzearen alorrean plangintza orokorra egin behar da herritar guztiek gutxieneko ezagutza eskura dezaten. Bestalde, garrantzitsua da bertako hizkuntza ikasten ari denari bidea erraztea: doakotasunera iristeko bideak jarri behar dira, ikasten ari dena saritu egin behar da eta horretarako denbora eman behar zaio, administrazioak motibazioa lantzeko kanpainak egin behar ditu herri mugimenduekin elkarlanean, administrazioak eredu izan behar du, erabilguneak sustatu behar dira... Horregatik honako eskaera hau:

- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzeari dagokion izaera estrategikoa ematea, beharrezko baliabideak eskainiz eta helduei ikasteko erraztasunak emanez.

7. Euskarazko hedabideen babesa

Euskarazko hedabideei dagokienez, horiek egoki babestu eta elikatu behar dira diru laguntza nahikoak eskainiz, hitzarmenen bidez, legez espazioak eta lizentziak gordez eta publizitate instituzionalaren banaketan kontuan hartuz.

Nafarroan diharduten komunikabide guztien, nola idatzizkoen hala elektronikoen zein ikus-entzunezkoen jarduna aztertu eta gizartean gertatzen ari den aurrerabide soziolinguistikoaren pareko kuota batzuk legez ezartzea erabaki behar da. Bestela, gaurko egoerak alor batzuetan neke handiz lortzen den aurrerapena beste eremu batzuetako kontra-jardunaren eraginez galgatzea baitakar.

8. Euskararen aurrekontua handitu

Hizkuntza-politikari bultzada indartsu bat eman nahi bazaio diru baliabideak nabarmen handitu behar dira. Hori lortzeko honako hiru puntuok aintzat hartzea beharrezkoa izan daiteke:

- Normalizazio-prozesuak norbanakoei eta gizarte eragileei sortzen dizkien ahalegin eta inbertsio ekonomikoak arintzeko zerga kenketak ezartzea.
- Diru laguntza politika eraginkorra izateko aurrekontu osoaren %2 normalizaziora esleitu
- Euskalgintzarentzat enpresa-kreditu finantzatuak, kreditu bigunak emateko laguntzak, enplegua sortzeko laguntzak, fondo galduko kredituak, azpiegiturak sortzeko laguntzak, teknologia berriak implementatzeko laguntzak eta abar sortzea. Era berean, euskararen sustapena Balio Erantsiaren Zergaz salbuestea beharrezkoa da.

9. Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa euskaldundu

Orain arte baino ahalegin eta baliabide gehiago bideratu behar dira unibertsitateetan falta diren karrerak euskaraz ikasteko aukerak sortzeko eta Lanbide Heziketaren eskaintza osorik euskalduntzeko. Bestetik, Lanbide Heziketako praktikak euskaraz egitea ahalbidetzen duten enpresei abantaila fiskalak eskaini beharko litzaizkieke.

10. Kultur sistemaren sustapena

Kultur sistema osasuntsu baten beharra dago eta hori ere hizkuntza-politikaren helburua da. Kultur politiketan hizkuntzak gune zentrala edukitzeaz gain, euskarazko kulturgintza babestuko da eta kultur jarduerari kuota sistema ezarriko zaio.

11. Aisialdia euskaldundu beharra

Aisialdiari dagokionez, esan behar da hizkuntza-politika egoki batek horiek euskalduntzeko helburua izan behar duela. Horrela, kirola, eskolaz kanpoko eskaintza, gazteen aisialdia eta helduena etab euskalduntzeari begirako lana indartuko da finantzazioaren bitartez, euskarazko eskaintza bermatuz eta kuotak ezarriz.

Mintzapraktika sustatzeko inizatibak bereziki lagunduko dira.

12. Arnasguneen babesa

Euskararen normalizazioak asko jokatzen du arnasguneetan. Izan ere, haien hedapena da biderik sendoena aurrera egiteko. Beraz arnasgune geografikoak eta funtzionalak babesteko, hedatzeko eta elikatzeke politikak abiatuko dira.

13. Hizkuntza-politika egokia

Hizkuntza-politika egokia abiatzea ezinbestekoa da orain arte aipatutako puntuen bidetik euskararen normalizazioa lortu nahi bada. Kontseiluaren aburuz egokitasun horren jabe den hizkuntza-politikak honelakoa izan behar du:

- Epe eta helburu zehatzak dituen hizkuntza-politika, bitartekoz hornitua, sail artekoa, gizarteko sektore guztietara iristeko modukoa, Administrazio Nagusitik Toki Administrazioarainokoa, hizkuntza-eskubideak bermatu nahi dituen, Euskal Herriko eremu osoan aplikatzeko modukoa eta ikuspegi osokoa, euskararen erabilera normalizatua helburu duena.
- Administrazio guztien arteko koordinazio organoa sortu behar da.
- Osagarritasuna bilatu behar da, herri-mugimenduak sortzen dituen proiektuekin indarrak metatzea helburu.
- Euskalgintzako agenteekin elkarlan iraunkorra ezartzea.

Aipaturiko baldintza horiek beteko dituen politika behar da gizartean dauden baliabide mugatuak ahalik eta ongien ustiatu eta era koordinatuan normalizazioak eskatzen duen helburua lortzeko.